3. Organo judizialen edo bulego judizialen kasuetan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren bitartez egikarituko dira ikuskapen-ahalmenak.

54. artikulua. Auditoria-planak.

1. Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren lehendakaritzak jarduerasektore jakin bateko tratamenduei buruzko prebentziozko auditoria-planak egitea erabaki ahal izango du. Plan hauen helburua izango da (EB) 2016/679 Erregelamenduko eta lege organiko honetako xedapenak betetzearen gaineko analisia egitea, ikerketa-jarduerak eginez ikuskaturiko sektoreko entitateei buruz edo auditoriaren xede diren arduradunei buruz.

Artículo 53. Alcance de la actividad de investigación.

1. Quienes desarrollen la actividad de investigación podrán recabar las informaciones precisas para el cumplimiento de sus funciones, realizar inspecciones, requerir la exhibición o el envío de los documentos y datos necesarios, examinarlos en el lugar en que se encuentren depositados o en donde se lleven a cabo los tratamientos, obtener copia de ellos, inspeccionar los equipos físicos y lógicos y requerir la ejecución de tratamientos y programas o procedimientos de gestión y soporte del tratamiento sujetos a investigación.

2. Cuando fuese necesario el acceso por el personal que desarrolla la actividad de investigación al domicilio constitucionalmente protegido del inspeccionado, será preciso contar con su consentimiento o haber obtenido la correspondiente autorización judicial.

3. Cuando se trate de órganos judiciales u oficinas judiciales el ejercicio de las facultades de inspección se efectuará a través y por mediación del Consejo General del Poder Judicial.

Artículo 54. Planes de auditoría.

1. La Presidencia de la Agencia Española de Protección de Datos podrá acordar la realización de planes de auditoría preventiva, referidos a los tratamientos de un sector concreto de actividad. Tendrán por objeto el análisis del cumplimiento de las disposiciones del Reglamento (UE) 2016/679 y de la presente ley orgánica, a partir de la realización de actividades de investigación sobre entidades pertenecientes al sector inspeccionado o

2. Auditoria-planen ondorioz, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren lehendakaritzak beharrezkoak diren jarraibide orokor edo espezifikoak eman ahal izango dizkio tratamenduaren arduradun edo eragile jakin bati, ziurtatzeko sektorea edo arduraduna erabat egokitzen dela (EB) 2016/679 Erregelamendura eta lege organiko honetara.

Jarraibide horiek lantzen dituenean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren lehendakaritzak kolaborazioa eskatu ahal izango die jokabide-kodeak gainbegiratzeko erakundeei eta gatazkak epaiketaz kanpo konpontzeko erakundeei, halakorik badago.

3. Auditoria-planak hartzen duen sektoreak edo arduradunak nahitaez bete beharko dituzte jarraibideak.

3. atala. Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren beste ahal batzuk

55. artikulua. Erregulazio-ahalak. Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren zirkularrak.

1. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak «Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren zirkularrak» izeneko xedapenak eman ahal izango ditu, (EB) 2016/679 Erregelamenduan eta lege organiko honetan ezarritakoa aplikatzen duenean bere jardunbidearen irizpideak finkatzeko.

2. Zirkularrak lantzeko, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Estatutuan ezartzen den prozedura erabiliko da, eta kontuan hartuko dira beharrezkoak diren txosten tekniko eta juridikoak eta

sobre los responsables objeto de la auditoría.

2. A results of the audit plans, the Presidency of the Spanish Agency for Data Protection will be able to dictate the general or specific directives for a concrete responsible or in charge of the treatments precise to ensure the full adaptation of the sector or responsible to the Regulation (UE) 2016/679 and to the present organic law.

En la elaboración de dichas directrices la Presidencia de la Agencia Española de Protección de Datos podrá solicitar la colaboración de los organismos de supervisión de los códigos de conducta y de resolución extrajudicial de conflictos, si los hubiere.

3. Las directrices serán de obligado cumplimiento para el sector o responsable al que se refiera el plan de auditoría.

Sección 3.^a Otras potestades de la Agencia Española de Protección de Datos

Artículo 55. Potestades de regulación. Circulares de la Agencia Española de Protección de Datos.

1. La Presidencia de la Agencia Española de Protección de Datos podrá dictar disposiciones que fijen los criterios a que responderá la actuación de esta autoridad en la aplicación de lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 y en la presente ley orgánica, que se denominarán «Circulares de la Agencia Española de Protección de Datos».

2. Su elaboración se sujetará al procedimiento establecido en el Estatuto de la Agencia Española de Protección de Datos, que deberá prever los informes técnicos y jurídicos que fueran necesarios y

interesdunei eman beharreko entzunaldia.

3. Behin *Estatuaren Aldizkari Ofizialean* argitaratuz gero, zirkularrak aginduzkoak izango dira.

56. artikulua. Kanpo-ekintza.

1. Datuak Babesteko Espainiako Agentziari dagokio datu-babesaren alorrean Estatuak dituen kanpo-ekintzarekin loturiko eginkizunen titulartasuna eta eginkizun horiek egikaritzea.

Era berean, autonomia-erkidegoei dagokie, datuak babesteko agintaritzaren autonomikoen bidez, Estatuaren Kanpo Ekintzari eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legean ezarritako esparruan kanpo-harremanen subjektu gisa dituzten eginkizunak egikaritzea, bai eta nazioarteko administrazio-akordioak egitea ere, nazioarteko tratatuak gauzatzeari eta zehazteari begira, eta akordio ez-araueak egitea nazioarteko zuzenbideko beste subjektu batzuetako antzeko organoekin, sinatzaileak juridikoki lotzen ez dituztenak, Nazioarteko Tratatuak eta Akordioak azaroaren 27ko 25/2014 Legearen esparruan euren eskumenekoak diren gaien inguruan.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentzia da pertsona fisikoak babesteko eskumena duen organismoa, Espainiako Erresuma parte den nazioarteko edozein hitzarmen aplikatzearen ondorioz sortzen diren datu pertsonalen tratamenduei dagokienez, baldin eta halako hitzarmenek kontrol-agintaritzaren nazional bati esleitzen badiote eskumen hori, eta halaber da datuak babesteko agintaritzen ordezkari komuna Datuak Babesteko Europako Lantaldean, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 68.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

la audiencia a los interesados.

3. Las circulares serán obligatorias una vez publicadas en el Boletín Oficial del Estado.

Artículo 56. Acción exterior.

1. Corresponde a la Agencia Española de Protección de Datos la titularidad y el ejercicio de las funciones relacionadas con la acción exterior del Estado en materia de protección de datos.

Asimismo a las comunidades autónomas, a través de las autoridades autonómicas de protección de datos, les compete ejercitar las funciones como sujetos de la acción exterior en el marco de sus competencias de conformidad con lo dispuesto en la Ley 2/2014, de 25 de marzo, de la Acción y del Servicio Exterior del Estado, así como celebrar acuerdos internacionales administrativos en ejecución y concreción de un tratado internacional y acuerdos no normativos con los órganos análogos de otros sujetos de derecho internacional, no vinculantes jurídicamente para quienes los suscriben, sobre materias de su competencia en el marco de la Ley 25/2014, de 27 de noviembre, de Tratados y otros Acuerdos Internacionales.

2. La Agencia Española de Protección de Datos es el organismo competente para la protección de las personas físicas en lo relativo al tratamiento de datos personales derivado de la aplicación de cualquier Convenio Internacional en el que sea parte el Reino de España que atribuya a una autoridad nacional de control esa competencia y la representante común de las autoridades de Protección de Datos en el Comité Europeo de Protección de Datos, conforme a lo dispuesto en el artículo 68.4 del Reglamento (UE) 2016/679.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak jakitun ipiniko ditu datuak babesteko agintaritza autonomikoak Datuak Babesteko Europako Lantaldean hartzen diren erabakiez, eta iritzia eskatuko die haien eskumeneko gaiak aztertzen direnean.

3. Artikulu honen 1. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak egiteko hauek izango ditu:

a) Parte hartuko du datu-babesaren alorreko kontrol-agintaritza independenteek elkar hartuta ezarritako Europar Batasunaz beste eremuetako nazioarteko bilera eta foroetan.

b) Parte hartuko du, Espainiako agintaritza gisa, datu-babesaren alorreko nazioarteko erakunde eskudunetan, datu pertsonalak babestuak izateko oinarrizko eskubideari eragiten dioten gaiak aztertzen dituzten nazioarteko erakundeetako batzorde eta lantaldeetan, ikerketa- eta kolaborazio-taldeetan, eta nazioarteko beste foro edo lantaldeetan, Estatuaren kanpo-ekintzaren esparruan.

c) Elkarlanean jardungo du beste estatu batzuetako agintaritza, instituzio, organismo eta administrazio batzuekin, datu pertsonalak babestuak izateko oinarrizko eskubidea bultzatu, sustatu eta garatzeko, bereziki eremu iberoamerikarrean; alorreko nazioarteko akordio administratibo ez-arauemaileak sinatu ahalko ditu.

La Agencia Española de Protección de Datos informará a las autoridades autonómicas de protección de datos acerca de las decisiones adoptadas en el Comité Europeo de Protección de Datos y recabará su parecer cuando se trate de materias de su competencia.

3. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 1, la Agencia Española de Protección de Datos:

a) Participará en reuniones y foros internacionales de ámbito distinto al de la Unión Europea establecidos de común acuerdo por las autoridades de control independientes en materia de protección de datos.

b) Participará, como autoridad española, en las organizaciones internacionales competentes en materia de protección de datos, en los comités o grupos de trabajo, de estudio y de colaboración de organizaciones internacionales que traten materias que afecten al derecho fundamental a la protección de datos personales y en otros foros o grupos de trabajo internacionales, en el marco de la acción exterior del Estado.

c) Colaborará con autoridades, instituciones, organismos y Administraciones de otros Estados a fin de impulsar, promover y desarrollar el derecho fundamental a la protección de datos, en particular en el ámbito iberoamericano, pudiendo suscribir acuerdos internacionales administrativos y no normativos en la materia.

II. KAPITULUA

Datuak babesteko agintaritza autonomikoak

1. atala. Xedapen orokorrak

57. artikulua. Datuak babesteko agintaritza autonomikoak.

1. Datuak babesteko agintaritza autonomikoek (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 57. eta 58. artikuluetan ezarritako eginkizunak eta ahalak egikaritu ahal izango dituzte, araudi autonomikoarekin bat, tratamendu hauen kasuetan:

a) Tratamenduaren arduradunak baldin badira tokian tokiko autonomia-erkidegoko sektore publikoko entitateak edo haren lurralde-eremukoko toki-entitateak edo edozein eratako zuzeneko zein zeharkako kudeaketaren bidez zerbitzuak ematen dituztenak.

b) Tratamenduaren helburua bada pertsona fisiko edo juridikoek kasuan kasuko administrazio autonomikoari edo toki-administrazioari dagokion eskumeneko alorretako eginkizun publikoak egikaritzea.

c) Tratamenduak berariaz jasota badaude tokian tokiko autonomia-estatutuetan.

2. Datuak babesteko agintaritza autonomikoek beren eskumeneko tratamenduei buruzko zirkularrak eman ahal izango dituzte, lege organiko honen 55. artikuluan Datuak Babesteko Espainiako Agintzientzat adierazitako helmen eta ondoreekin.

CAPÍTULO II

Autoridades autonómicas de protección de datos

Sección 1.^a Disposiciones generales

Artículo 57. Autoridades autonómicas de protección de datos.

1. Las autoridades autonómicas de protección de datos personales podrán ejercer, las funciones y potestades establecidas en los artículos 57 y 58 del Reglamento (UE) 2016/679, de acuerdo con la normativa autonómica, cuando se refieran a:

a) Tratamientos de los que sean responsables las entidades integrantes del sector público de la correspondiente Comunidad Autónoma o de las Entidades Locales incluidas en su ámbito territorial o quienes presten servicios a través de cualquier forma de gestión directa o indirecta.

b) Tratamientos llevados a cabo por personas físicas o jurídicas para el ejercicio de las funciones públicas en materias que sean competencia de la correspondiente Administración Autónoma o Local.

c) Tratamientos que se encuentren expresamente previstos, en su caso, en los respectivos Estatutos de Autonomía.

2. Las autoridades autonómicas de protección de datos podrán dictar, en relación con los tratamientos sometidos a su competencia, circulares con el alcance y los efectos establecidos para la Agencia Española de Protección de Datos en el artículo 55 de esta ley orgánica.

58. artikulua. Erakundearteko lankidetzak.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren lehendakaritzak dei egingo die datuak babesteko agintaritzak autonomikoei, bere ekimenez edo beste agintaritzak baten eskariz, (EB) 2016/679 Erregelamendua eta lege organiko hau modu koherente batez aplikatu daitezten lankidetzan jarduteko. Nolanahi ere, sei hilean behin lankidetzarako bilerak egingo dira.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren lehendakaritzak eta datuak babesteko agintaritzak autonomikoen beren eginkizunak betetzeko behar duten informazioa eskatu ahal izango diote elkarri, eta nahitaez eman, batez ere Datuak Babesteko Europako Lantaldearen jardunari buruzkoa. Gainera, lantaldeak sortu ahalko dituzte interes komunekoa aztertzeko.

59. artikulua. (EB) 2016/679 Erregelamenduarekin bat ez datozen tratamenduak.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren lehendakaritzak uste badu datuak babesteko agintaritzak autonomikoen eskumeneko gaien inguruan egindako tratamendu batek urratzen duela (EB) 2016/679 Erregelamendua, errekerimendua egin diezaike tratamendua bertan behera uzteko neurriak har ditzaten, eta horretarako hilabeteko epea emango die.

Agintaritzak autonomikoak ez badio epe horretan errekerimenduari erantzuten, edo hartzen diren neurriek ez badakarte legez kontrako tratamendua bertan behera uztea, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak dagozkion ekintzak abiaraz ditzake administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

Artículo 58. Cooperación institucional.

La Presidencia de la Agencia Española de Protección de Datos convocará, por iniciativa propia o cuando lo solicite otra autoridad, a las autoridades autonómicas de protección de datos para contribuir a la aplicación coherente del Reglamento (UE) 2016/679 y de la presente ley orgánica. En todo caso, se celebrarán reuniones semestrales de cooperación.

La Presidencia de la Agencia Española de Protección de Datos y las autoridades autonómicas de protección de datos podrán solicitar y deberán intercambiarse mutuamente la información necesaria para el cumplimiento de sus funciones y, en particular, la relativa a la actividad del Comité Europeo de Protección de Datos. Asimismo, podrán constituir grupos de trabajo para tratar asuntos específicos de interés común.

Artículo 59. Tratamientos contrarios al Reglamento (UE) 2016/679.

Cuando la Presidencia de la Agencia Española de Protección de Datos considere que un tratamiento llevado a cabo en materias que fueran competencia de las autoridades autonómicas de protección de datos vulnera el Reglamento (UE) 2016/679 podrá requerirlas a que adopten, en el plazo de un mes, las medidas necesarias para su cesación.

Si la autoridad autonómica no atendiere en plazo el requerimiento o las medidas adoptadas no supusiesen la cesación en el tratamiento ilícito, la Agencia Española de Protección de Datos podrá ejercer las acciones que procedan ante la jurisdicción contencioso-administrativa.

*2. atala. Koordinazioa, (EB) 2016/679
Erregelamenduan ezarritako prozeduren
esparruan*

60. artikulua. Koordinazioa, Datuak Babesteko Europako Lantaldeak irizpena ematen duenean.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren bitartez egingo dira Datuak Babesteko Europako Lantaldearen eta datuak babesteko agintaritza autonomikoen arteko komunikazio guztiak, agintaritza autonomikoek, eskudun diren aldetik, beren erabaki-proiektua lantalde horretan aurkeztu behar dutenean edo gai jakin bat aztertzeko eskatzen diotenean, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 64. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoaren indarrez.

Kasu horietan, agintaritza autonomikoaren ordezkari baten laguntza izango du Datuak Babesteko Espainiako Agentziak Lantaldearen aurrean jarduten duenean.

61. artikulua. Esku-hartzea mugaz gaindiko tratamenduetan.

1. Datuak babesteko agintaritza autonomikoak kontrol-agintaritza nagusi edo agintaritza interesdun izango dira (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 60. artikulua ezarritako prozeduran, prozedura lege organiko honen 57. artikuluan jasotako tratamenduren bati buruzkoa denean, baldin (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 56. artikulua aurreikusitako tratamenduaren arduradun edo eragileren batek egiten badu tratamendua, salbu eta izaera bereko tratamenduak egiten baditu, modu esanguratsuan, Espainiako gainerako lurraldean.

2. Kasu hauetan, agintaritza autonomikoei

*Sección 2.ª Coordinación en el marco de
los procedimientos establecidos en el
Reglamento (UE) 2016/679*

Artículo 60. Coordinación en caso de emisión de dictamen por el Comité Europeo de Protección de Datos.

Se practicarán por conducto de la Agencia Española de Protección de Datos todas las comunicaciones entre el Comité Europeo de Protección de Datos y las autoridades autonómicas de protección de datos cuando éstas, como autoridades competentes, deban someter su proyecto de decisión al citado comité o le soliciten el examen de un asunto en virtud de lo establecido en los apartados 1 y 2 del artículo 64 del Reglamento (UE) 2016/679.

En estos casos, la Agencia Española de Protección de Datos será asistida por un representante de la Autoridad autonómica en su intervención ante el Comité.

Artículo 61. Intervención en caso de tratamientos transfronterizos.

1. Las autoridades autonómicas de protección de datos ostentarán la condición de autoridad de control principal o interesada en el procedimiento establecido por el artículo 60 del Reglamento (UE) 2016/679 cuando se refiera a un tratamiento previsto en el artículo 57 de esta ley orgánica que se llevara a cabo por un responsable o encargado del tratamiento de los previstos en el artículo 56 del Reglamento (UE) 2016/679, salvo que desarrollase significativamente tratamientos de la misma naturaleza en el resto del territorio español.

2. Corresponderá en estos casos a las

dagokie (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 60. artikuluan ezarritako prozeduretan esku hartzea eta Datuak Babesteko Espainiako Agentzia jakitun ipintzea prozeduren garapenaz, koherentzia-mekanismoa aplikatu behar denean.

62. artikulua. Koordinazioa, Datuak Babesteko Europako Lantaldeak gatazkak konpondu behar dituenen.

1. Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren bitartez egingo dira Datuak Babesteko Europako Lantaldearen eta datuak babesteko agintaritza autonomikoen arteko komunikazio guztiak, agintaritza autonomikoen, agintaritza nagusi diren aldetik, Lantaldeari erabaki lotesle bat eman dezan eskatu behar diotenean, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 65. artikuluan xedatutakoaren indarrez.

2. (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 65. artikuluan aurreikusitako prozeduraren batean agintaritza interesdun ez-nagusi gisa diharduten agintaritza autonomikoen jakitun ipiniko dute Datuak Babesteko Espainiako Agentzia gaia Datuak Babesteko Europako Lantaldeari bidaltzen zaionean, eta hura izapidetzeko behar den dokumentazio eta informazioa eskuratuko diote.

Agintaritza autonomikoaren ordezkari baten laguntza izango du Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, Lantaldearen aurrean jarduten duenean.

autoridades autonómicas intervenir en los procedimientos establecidos en el artículo 60 del Reglamento (UE) 2016/679, informando a la Agencia Española de Protección de Datos sobre su desarrollo en los supuestos en que deba aplicarse el mecanismo de coherencia.

Artículo 62. Coordinación en caso de resolución de conflictos por el Comité Europeo de Protección de Datos.

1. Se practicarán por conducto de la Agencia Española de Protección de Datos todas las comunicaciones entre el Comité Europeo de Protección de Datos y las autoridades autonómicas de protección de datos cuando estas, como autoridades principales, deban solicitar del citado Comité la emisión de una decisión vinculante según lo previsto en el artículo 65 del Reglamento (UE) 2016/679.

2. Las autoridades autonómicas de protección de datos que tengan la condición de autoridad interesada no principal en un procedimiento de los previstos en el artículo 65 del Reglamento (UE) 2016/679 informarán a la Agencia Española de Protección de Datos cuando el asunto sea remitido al Comité Europeo de Protección de Datos, facilitándole la documentación e información necesarias para su tramitación.

La Agencia Española de Protección de Datos será asistida por un representante de la autoridad autonómica interesada en su intervención ante el mencionado comité.

VIII. TITULUA

Datuak babesteko araudia urratuz gero erabili beharreko prozedurak

63. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Titulu honetako xedapenak Datuak Babesteko Espainiako Agentziak izapideturiko prozedura hauetan aplikatuko dira: ukitutako pertsona batek erreklamatzeko ez diotela jaramonik egin (EB) 2016/679 Erregelamenduan 15.etik 22. artikulura artekoetan jasotako eskubideak egikaritzeko egin duen eskabideari, eta Agentziak ikertzen badu Erregelamenduan edo lege organiko honetan arau-hausterik egin denetz.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak izapideturiko prozedurak (EB) 2016/679 Erregelamenduan eta lege organiko honetan eta Legea garatzeko ematen diren erregelamenduzko xedapenetan agindutakoaren mende egongo dira, eta, aurrekoekin kontraesan ez badaude, osagarri moduan, administrazio-prozedurei buruzko arau orokorren mende.

3. Gobernuak errege-dekretu bidez arautuko ditu titulu honen babesean Datuak Babesteko Espainiako Agentziak izapidetzen dituen prozedurak, uneoro bermatuz interesdunen defentsa-eskubidea eta entzunaldia izateko eskubidea.

64. artikulua. Prozedura hasteko modua eta iraupena.

1. Prozeduraren gai bakarra baldin bada ez zaiola jaramonik egin (EB) 2016/679 Erregelamenduan 15.etik 22. artikulura

TÍTULO VIII

Procedimientos en caso de posible vulneración de la normativa de protección de datos

Artículo 63. Régimen jurídico.

1. Las disposiciones de este Título serán de aplicación a los procedimientos tramitados por la Agencia Española de Protección de Datos en los supuestos en los que un afectado reclame que no ha sido atendida su solicitud de ejercicio de los derechos reconocidos en los artículos 15 a 22 del Reglamento (UE) 2016/679, así como en los que aquella investigue la existencia de una posible infracción de lo dispuesto en el mencionado reglamento y en la presente ley orgánica.

2. Los procedimientos tramitados por la Agencia Española de Protección de Datos se registrarán por lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679, en la presente ley orgánica, por las disposiciones reglamentarias dictadas en su desarrollo y, en cuanto no las contradigan, con carácter subsidiario, por las normas generales sobre los procedimientos administrativos.

3. El Gobierno regulará por real decreto los procedimientos que tramite la Agencia Española de Protección de Datos al amparo de este Título, asegurando en todo caso los derechos de defensa y audiencia de los interesados.

Artículo 64. Forma de iniciación del procedimiento y duración.

1. Cuando el procedimiento se refiera exclusivamente a la falta de atención de una solicitud de ejercicio de los derechos

artekoetan jasotako eskubideak egikaritzeko eskabide bati, prozedura hasiko da izapidetzea onartzeko erabakiaren bidez, zeina lege organiko honen 65. artikuluan agindutakoaren arabera hartuko baita.

Kasu horretan, sei hilekoa izango da prozedura ebazteko epea, izapidetzea onartzeko erabakia erreklamatzaileri jakinarazten zaionetik zenbatuta. Epea igarota, interesdunak baietsizat jo ahal izango du erreklamazioa.

2. Prozeduraren xedea baldin bada jakitea (EB) 2016/679 Erregelamenduan edo lege organiko honetan arau-hausterik egin denetz, prozedura hasiko da hasteko erabakiaren bitartez, Agentziak bere ekimenez hartua, edo erreklamazioaren ondorioz.

Prozedura oinarritzen bada Datuak Babesteko Espainiako Agentzian aurkezturiko erreklamazio batean, Agentziak aldeztu aurretik erabakiko du izapidetzeko onartzen duen ala ez, lege organiko honen 65. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

(EB) 2016/679 Erregelamenduaren 60. artikuluko arauak aplikatzekoak direnean, zehapen-prozedura hasteko erabaki-proiektuaren bidez hasiko da prozedura, zeinaren berri interesdunari modu formalean emango baitzaio, lege organiko honen 75. artikuluan aurreikusitako ondoretarako.

Behin erreklamazioa izapidetzeko onartuz gero, eta halaber Datuak Babesteko Espainiako Agentziak bere ekimenez diharduenean, hasteko erabakiaren aurretik aurretiazko ikerketa-jarduketan fasea egon

establecidos en los artículos 15 a 22 del Reglamento (UE) 2016/679, se iniciará por acuerdo de admisión a trámite, que se adoptará conforme a lo establecido en el artículo 65 de esta ley orgánica.

En este caso el plazo para resolver el procedimiento será de seis meses a contar desde la fecha en que hubiera sido notificado al reclamante el acuerdo de admisión a trámite. Transcurrido ese plazo, el interesado podrá considerar estimada su reclamación.

2. Cuando el procedimiento tenga por objeto la determinación de la posible existencia de una infracción de lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 y en la presente ley orgánica, se iniciará mediante acuerdo de inicio adoptado por propia iniciativa o como consecuencia de reclamación.

Si el procedimiento se fundase en una reclamación formulada ante la Agencia Española de Protección de Datos, con carácter previo, esta decidirá sobre su admisión a trámite, conforme a lo dispuesto en el artículo 65 de esta ley orgánica.

Cuando fuesen de aplicación las normas establecidas en el artículo 60 del Reglamento (UE) 2016/679, el procedimiento se iniciará mediante la adopción del proyecto de acuerdo de inicio de procedimiento sancionador, del que se dará conocimiento formal al interesado a los efectos previstos en el artículo 75 de esta ley orgánica.

Admitida a trámite la reclamación así como en los supuestos en que la Agencia Española de Protección de Datos actúe por propia iniciativa, con carácter previo al acuerdo de inicio, podrá existir una fase de

daiteke, zeina lege organiko honen 67. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko baita.

Prozedurak bederatzi hilabete iraungo du, gehienez ere, hasteko erabakiaren egunetik edo, hala badagokio, hasteko erabaki-proiektuaren egunetik zenbatuta. Behin epe hori igarota, iraungi egingo da eta, horrenbestez, jarduketak artxibatu egingo dira.

3. Prozedura izapidetu ahal izango da orobat Europar Batasuneko beste estatu kide bateko kontrol-agintaritzak Datuak Babesteko Espainiako Agentziari komunikatzen badio erreklamazio bat aurkeztu dutela beste kontrol-agintaritzaren horretan, eta Espainiako Agentzia kontrol-agintaritzaren nagusia bada prozedura izapidetzean (EB) 2016/679 Erregelamenduko 56. eta 60. artikuluen arabera. Kasu horretan, aplikatzekoa izango da 1. apartatuan xedatutakoa eta 2. apartatuko lehenengo paragrafoan, hirugarrenean, laugarrenean eta bosgarrenean xedatutakoa.

4. Artikulu honetan ezarritako izapidetze-epeak, bai eta 65.5 artikuluan araututako izapidetzeko onartzeari buruzkoak eta 67.2 artikuluan aurretiazko ikerketa-jarduketan iraupenari buruzkoak ere, eten egingo dira automatikoki baldin eta, (EB) 2016/679 Erregelamenduak agindutakoaren arabera, informazioa, laguntza edo nahitaezko erabakia eskatu behar bazaio edo kontsulta egin Europar Batasuneko organo edo organismoren bati edo estatu kideetako kontrol-agintaritzaren bati, eta etendurak iraungo du eskaera egiten denetik Datuak Babesteko Espainiako Agentziari erabakia jakinarazten zaion arte.

actuaciones previas de investigación, que se registrará por lo previsto en el artículo 67 de esta ley orgánica.

El procedimiento tendrá una duración máxima de nueve meses a contar desde la fecha del acuerdo de inicio o, en su caso, del proyecto de acuerdo de inicio. Transcurrido ese plazo se producirá su caducidad y, en consecuencia, el archivo de actuaciones.

3. El procedimiento podrá también tramitarse como consecuencia de la comunicación a la Agencia Española de Protección de Datos por parte de la autoridad de control de otro Estado miembro de la Unión Europea de la reclamación formulada ante la misma, cuando la Agencia Española de Protección de Datos tuviese la condición de autoridad de control principal para la tramitación de un procedimiento conforme a lo dispuesto en los artículos 56 y 60 del Reglamento (UE) 2016/679. Será en este caso de aplicación lo dispuesto en el apartado 1 y en los párrafos primero, tercero, cuarto y quinto del apartado 2.

4. Los plazos de tramitación establecidos en este artículo así como los de admisión a trámite regulados por el artículo 65.5 y de duración de las actuaciones previas de investigación previstos en el artículo 67.2, quedarán automáticamente suspendidos cuando deba recabarse información, consulta, solicitud de asistencia o pronunciamiento preceptivo de un órgano u organismo de la Unión Europea o de una o varias autoridades de control de los Estados miembros conforme con lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679, por el tiempo que medie entre la solicitud y la notificación del pronunciamiento a la Agencia Española de Protección de Datos.

65. artikulua. Erreklamazioak izapidetzeko onartzea.

1. Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamazio bat aurkezten denean, Agentziak hura izapidetzeko onartu edo ez aztertu beharko du, artikulua honetan agindutakoari jarraituz.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak ez ditu erreklamazioak izapidetzeko onartuko datu pertsonalen babesaren gainekoak ez direnean, nabarmen funtsik gabeak direnean, abusuzkoak direnean edo arau-hausteen arrazoizko zantzurik ez dakartenean.

3. Halaber, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak erreklamazioak izapidetzeko ez onartzea erabaki ahalko du baldin eta tratamenduaren arduradunak edo eragileak, Agentziak aldeztu aurretik ohartarazita, neurri zuzentzaileak hartu baditu datu-babeserako legeriaren urraketa posiblearen aurka egiteko eta inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Ukituari kalterik sortu ez izana, lege organiko honen 74. artikuluan jasotzen diren arau-hausteen kasuan.

b) Neurri horiek aplikatuz, ukituaren eskubideak erabat bermatuta geratzea.

4. Erreklamazioa izapidetzeko onartu ala ez erabaki aurretik, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak erreklamazioa bidali ahal izango dio tratamenduaren arduradunak edo eragileak izendaturiko datuak babesteko ordezkariari —halakorik bada— edo jokabide-kodeak aplikatzeko

Artículo 65. Admisión a trámite de las reclamaciones.

1. Cuando se presentase ante la Agencia Española de Protección de Datos una reclamación, esta deberá evaluar su admisibilidad a trámite, de conformidad con las previsiones de este artículo.

2. La Agencia Española de Protección de Datos inadmitirá las reclamaciones presentadas cuando no versen sobre cuestiones de protección de datos personales, carezcan manifiestamente de fundamento, sean abusivas o no aporten indicios racionales de la existencia de una infracción.

3. Igualmente, la Agencia Española de Protección de Datos podrá inadmitir la reclamación cuando el responsable o encargado del tratamiento, previa advertencia formulada por la Agencia Española de Protección de Datos, hubiera adoptado las medidas correctivas encaminadas a poner fin al posible incumplimiento de la legislación de protección de datos y concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que no se haya causado perjuicio al afectado en el caso de las infracciones previstas en el artículo 74 de esta ley orgánica.

b) Que el derecho del afectado quede plenamente garantizado mediante la aplicación de las medidas.

4. Antes de resolver sobre la admisión a trámite de la reclamación, la Agencia Española de Protección de Datos podrá remitir la misma al delegado de protección de datos que hubiera, en su caso, designado el responsable o encargado del tratamiento o al organismo de supervisión

ezarri den gainbegiratzeko erakundeari, lege organiko honen 37. eta 38.2 artikuluetan jasotako ondoreetarako.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, halaber, tratamenduaren arduradunari edo eragileari bidali ahal izango dio erreklamazioa, baldin eta datuak babesteko ordezkariak izendatu ez bada eta gatazkak epaiketaz kanpo konpontzeko sistemaren bati atxikita ez badago; arduradunak edo eragileak hilabeteko epea izango du erreklamazioari erantzuna emateko.

5. Hiru hileko epean jakinarazi beharko zaio erreklamatzaileri izapidetzeko onartzeari edo ez onartzeari buruzko erabakia, bai eta, hala badagokio, erreklamazioa eskudun irizten zaion kontrol-agintaritza nagusiarri bidaltzeari buruzko erabakia ere. Epe hori igaro eta jakinarazpenik ez badago, ulertuko da erreklamazioaren izapideak aurrera doazela titulu honetan agindutakoari jarraituz, erreklamazioa Datuak Babesteko Espainiako Agentzian sartu eta handik hiru hileko epea betetzen denetik aurrera.

66. artikulua. Lurralde-helmena zehaztea.

1. Lege organiko honen 64.3 artikulua aipatzen dituen kasuetan izan ezik, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, beste edozein jarduketa egin aurretik –baita erreklamazioa izapidetzeko onartzea ere edo aurretiazko ikerketa-jarduketak hastea–, bere eskumena aztertu beharko du, eta erabaki beharko du erabili beharreko prozedura nazionala ala mugaz gaindikoa den, edozein modalitatetan.

establecido para la aplicación de los códigos de conducta a los efectos previstos en los artículos 37 y 38.2 de esta ley orgánica.

La Agencia Española de Protección de Datos podrá igualmente remitir la reclamación al responsable o encargado del tratamiento cuando no se hubiera designado un delegado de protección de datos ni estuviera adherido a mecanismos de resolución extrajudicial de conflictos, en cuyo caso el responsable o encargado deberá dar respuesta a la reclamación en el plazo de un mes.

5. La decisión sobre la admisión o inadmisión a trámite, así como la que determine, en su caso, la remisión de la reclamación a la autoridad de control principal que se estime competente, deberá notificarse al reclamante en el plazo de tres meses. Si transcurrido este plazo no se produjera dicha notificación, se entenderá que prosigue la tramitación de la reclamación con arreglo a lo dispuesto en este Título a partir de la fecha en que se cumpliesen tres meses desde que la reclamación tuvo entrada en la Agencia Española de Protección de Datos.

Artículo 66. Determinación del alcance territorial.

1. Salvo en los supuestos a los que se refiere el artículo 64.3 de esta ley orgánica, la Agencia Española de Protección de Datos deberá, con carácter previo a la realización de cualquier otra actuación, incluida la admisión a trámite de una reclamación o el comienzo de actuaciones previas de investigación, examinar su competencia y determinar el carácter nacional o transfronterizo, en cualquiera de sus modalidades, del procedimiento a

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak uste badu bera ez dela prozedura izapidetzeko kontrol-agintaritza nagusia, kontrol-agintaritza nagusi eskuduntzat jotzen duenari bidaliko dio erreklamazioa, beste izapidetik gabe, hark behar bezala bide eman diezaion. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak inguruabar hori jakinaraziko dio erreklamazioa aurkeztu duenari, halakorik bada.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen bidalketa-erabakiak prozeduraren behin-behineko artxibatzea dakar, hargatik eragotzi gabe Datuak Babesteko Espainiako Agentziak (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 60. artikulua 8. apartatuan jasotzen den ebazpena ematea, hala badagokio.

67. artikulua. Aurretiazko ikerketa-jarduketak.

1. Prozedura hasteko erabakia hartu aurretik, eta erreklamazioa izapidetzeko onartuz gero, halakorik badago, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak aurretiazko ikerketa-jarduketak egin ahalko ditu, prozedura izapidetzea justifikatzen duten egitateak eta inguruabarrak hobeto zehazteko.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak beti jardungo du, datu pertsonalen tratamendu masibo bat dakarren tratamendu-ikerketarik beharrezkoa denean.

2. Aurretiazko ikerketa-jarduketak lege organiko honen VII. tituluko I. kapituluaren 2. atalean agindutakoaren mende egongo dira, eta ezin izango dute iraun hamabi

seguir.

2. Si la Agencia Española de Protección de Datos considera que no tiene la condición de autoridad de control principal para la tramitación del procedimiento remitirá, sin más trámite, la reclamación formulada a la autoridad de control principal que considere competente, a fin de que por la misma se le dé el curso oportuno. La Agencia Española de Protección de Datos notificará esta circunstancia a quien, en su caso, hubiera formulado la reclamación.

El acuerdo por el que se resuelva la remisión a la que se refiere el párrafo anterior implicará el archivo provisional del procedimiento, sin perjuicio de que por la Agencia Española de Protección de Datos se dicte, en caso de que así proceda, la resolución a la que se refiere el apartado 8 del artículo 60 del Reglamento (UE) 2016/679.

Artículo 67. Actuaciones previas de investigación.

1. Antes de la adopción del acuerdo de inicio de procedimiento, y una vez admitida a trámite la reclamación si la hubiese, la Agencia Española de Protección de Datos podrá llevar a cabo actuaciones previas de investigación a fin de lograr una mejor determinación de los hechos y las circunstancias que justifican la tramitación del procedimiento.

La Agencia Española de Protección de Datos actuará en todo caso cuando sea precisa la investigación de tratamientos que implique un tráfico masivo de datos personales.

2. Las actuaciones previas de investigación se someterán a lo dispuesto en la Sección 2.ª del Capítulo I del Título VII de esta ley orgánica y no podrán tener una

hilabete baino gehiago, izapidetzeko onartzen den egunetik edo hasiera agintzen duen erabakiaren egunetik zenbatuta, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak bere kabuz diharduenean edo Europar Batasuneko beste estatu kide bateko kontrol-agintaritzak bidalitako komunikazioaren ondorioz diharduenean, errege lege-dekretu honen 64.3 artikulua araberan.

68. artikulua. Zehapen-ahala egikaritzeko prozeduraren hasiera agintzen duen erabakia.

1. Aurreko artikuluko jarduketak amaitzen direnean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren lehendakaritzaren eginkizuna izango da, hala badagokio, zehapen-ahala egikaritzeko prozeduraren hasiera agintzen duen erabakia ematea. Bertan zehaztuko dira: egitateak, prozedura zer pertsona edo entitatearen aurka bideratzen den, zer arau-hauste egin den, eta zer zehapen egokitu dakioken.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentzia kontrol-agintaritzaren nagusia denean eta (EB) 2016/679 Erregelamendua 60. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraitu behar zaionean, hor bertan agintzen denari men egingo dio zehapen-prozedura hasteko erabaki-proiektuak.

69. artikulua. Behin-behineko neurriak eta eskubideak bermatzekoak.

1. Aurretiazko ikerketa-jarduketak egiten diren bitartean edo zehapen-ahala egikaritzeko prozedura bat hasita dagoenean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak behin-behineko neurriak erabaki ahalko ditu, modu arrazoituan, datu

duración superior a doce meses a contar desde la fecha del acuerdo de admisión a trámite o de la fecha del acuerdo por el que se decida su iniciación cuando la Agencia Española de Protección de Datos actúe por propia iniciativa o como consecuencia de la comunicación que le hubiera sido remitida por la autoridad de control de otro Estado miembro de la Unión Europea, conforme al artículo 64.3 de esta ley orgánica.

Artículo 68. Acuerdo de inicio del procedimiento para el ejercicio de la potestad sancionadora.

1. Concluidas, en su caso, las actuaciones a las que se refiere el artículo anterior, corresponderá a la Presidencia de la Agencia Española de Protección de Datos, cuando así proceda, dictar acuerdo de inicio de procedimiento para el ejercicio de la potestad sancionadora, en que se concretarán los hechos, la identificación de la persona o entidad contra la que se dirija el procedimiento, la infracción que hubiera podido cometerse y su posible sanción.

2. Cuando la Agencia Española de Protección de Datos ostente la condición de autoridad de control principal y deba seguirse el procedimiento previsto en el artículo 60 del Reglamento (UE) 2016/679, el proyecto de acuerdo de inicio de procedimiento sancionador se someterá a lo dispuesto en el mismo.

Artículo 69. Medidas provisionales y de garantía de los derechos.

1. Durante la realización de las actuaciones previas de investigación o iniciado un procedimiento para el ejercicio de la potestad sancionadora, la Agencia Española de Protección de Datos podrá acordar motivadamente las medidas

pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea babestearen alde beharrezko eta proportziozko diren heinean, eta bereziki (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 66.1 artikuluan jasotako neurriak, datuak kautelaz blokeatzea eta eskatutako eskubideari berehala jaramon egiteko betebeharra.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak uste badu datu pertsonalen tratamenduak aurrera jarraitzeak, datuok komunikatzeak edo nazioartean transferitzeak kalte larria ekar diezaioketela datu pertsonalak babesteko eskubideari, datuak blokeatzeko eta datuen tratamendua eteteko agindu diezaike tratamenduen arduradunei edo eragileei, eta, haiek aginduok bete ezean, datuak geraraz ditzake.

3. Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamaziorik aurkezten bada, besteak beste (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 15.etik 22. artikulura artekoetan jasotako eskubideei epe barruan jaramonik egin ez zaielako, eskatutako eskubideari erantzuteko betebeharra erabaki ahalko du Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, edozein momentutan –baita zehapen-ahala egikaritzeko prozedura hasi baino lehen ere–, arrazoitutako ebazpen bidez eta tratamenduaren arduraduna entzun ondoren, eta prozedurak aurrera jarraituko du erreklamazioak hizpide dituen gainerako gaiei dagokienez.

provisionales necesarias y proporcionadas para salvaguardar el derecho fundamental a la protección de datos y, en especial, las previstas en el artículo 66.1 del Reglamento (UE) 2016/679, el bloqueo cautelar de los datos y la obligación inmediata de atender el derecho solicitado.

2. En los casos en que la Agencia Española de Protección de Datos considere que la continuación del tratamiento de los datos personales, su comunicación o transferencia internacional comportara un menoscabo grave del derecho a la protección de datos personales, podrá ordenar a los responsables o encargados de los tratamientos el bloqueo de los datos y la cesación de su tratamiento y, en caso de incumplirse por estos dichos mandatos, proceder a su inmovilización.

3. Cuando se hubiese presentado ante la Agencia Española de Protección de Datos una reclamación que se refiriese, entre otras cuestiones, a la falta de atención en plazo de los derechos establecidos en los artículos 15 a 22 del Reglamento (UE) 2016/679, la Agencia Española de Protección de Datos podrá acordar en cualquier momento, incluso con anterioridad a la iniciación del procedimiento para el ejercicio de la potestad sancionadora, mediante resolución motivada y previa audiencia del responsable del tratamiento, la obligación de atender el derecho solicitado, prosiguiéndose el procedimiento en cuanto al resto de las cuestiones objeto de la reclamación.

IX. TITULUA

Zehapen-araubidea

70. artikulua. Subjektu erantzuleak.

1. Hauek dira (EB) 2016/679 Erregelamenduan eta lege organiko honetan ezarritako zehapen-araubidearen mende daudenak:

- a) Tratamenduen arduradunak.
- b) Tratamendu-eragileak.
- c) Europar Batasunean kokatuta ez dauden tratamenduen arduradunen edo eragileen ordezkariak.
- d) Ziurtapen-erakundeak.
- e) Jokabide-kodeak gainbegiratzeko egiaztapena duten erakundeak.

2. Titulu honetan ezarritako zehapen-araubidea ez zaio aplikatuko datuak babesteko ordezkariari.

71. artikulua. Arau-hausteak.

Arau-hauste dira (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 83. artikuluko 4., 5. eta 6. apartatuetan aipatzen diren egintza eta jokabideak eta lege organiko honen aurka daudenak.

TÍTULO IX

Régimen sancionador

Artículo 70. Sujetos responsables.

1. Están sujetos al régimen sancionador establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 y en la presente ley orgánica:

- a) Los responsables de los tratamientos.
- b) Los encargados de los tratamientos.
- c) Los representantes de los responsables o encargados de los tratamientos no establecidos en el territorio de la Unión Europea.
- d) Las entidades de certificación.
- e) Las entidades acreditadas de supervisión de los códigos de conducta.

2. No será de aplicación al delegado de protección de datos el régimen sancionador establecido en este Título.

Artículo 71. Infracciones.

Constituyen infracciones los actos y conductas a las que se refieren los apartados 4, 5 y 6 del artículo 83 del Reglamento (UE) 2016/679, así como las que resulten contrarias a la presente ley orgánica.

72. artikulua. Arau-hauste oso astunak.

1. (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 83.5 artikulua ezartzen duenaren arabera, arau-hauste oso astuntzat joko dira, eta hiru urteren buruan preskribatuko dute, Erregelamenduko artikuluen funtsezko urraketak dakartzatenak, bereziki hauek:

a) (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 5. artikuluko printzipioak eta bermeak urratzen dituzten datu pertsonalen tratamenduak.

b) (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6. artikuluan tratamenduaren zilegitasunerako ezarritako baldintzetako bat ere betetzen ez duten datu pertsonalen tratamenduak.

c) (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 7. artikuluan adostasunerako ezarritako baldintzak ez betetzea.

d) Datuak erabiltzea bildu ziren helburuarekin bateragarria ez den beste helburu batekin, ukituaren adostasunik gabe edo horretarako legezko oinarririk gabe.

e) (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 9. artikulua hizpide dituen kategorietako datu pertsonalen tratamenduak, artikulua horretan eta lege organiko honen 9. artikuluan aipaturiko gorabeheretako bat ere gertatzen ez bada.

f) (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 10. artikuluan eta lege organiko honen 10. artikuluan baimentzen diren kasuetatik kanpo gertatzen diren kondenei eta arau-hauste penalei buruz edo haiei lotutako segurtasun-neurriei buruz dauden datu pertsonalen tratamenduak.

g) Lege organiko honen 27. artikuluan

Artículo 72. Infracciones consideradas muy graves.

1. En función de lo que establece el artículo 83.5 del Reglamento (UE) 2016/679 se consideran muy graves y prescribirán a los tres años las infracciones que supongan una vulneración sustancial de los artículos mencionados en aquel y, en particular, las siguientes:

a) El tratamiento de datos personales vulnerando los principios y garantías establecidos en el artículo 5 del Reglamento (UE) 2016/679.

b) El tratamiento de datos personales sin que concurra alguna de las condiciones de licitud del tratamiento establecidas en el artículo 6 del Reglamento (UE) 2016/679.

c) El incumplimiento de los requisitos exigidos por el artículo 7 del Reglamento (UE) 2016/679 para la validez del consentimiento.

d) La utilización de los datos para una finalidad que no sea compatible con la finalidad para la cual fueron recogidos, sin contar con el consentimiento del afectado o con una base legal para ello.

e) El tratamiento de datos personales de las categorías a las que se refiere el artículo 9 del Reglamento (UE) 2016/679, sin que concurra alguna de las circunstancias previstas en dicho precepto y en el artículo 9 de esta ley orgánica.

2. El Capítulo I del Título VII, el Título VIII, la disposición adicional cuarta y la disposición transitoria primera sólo serán de aplicación a la Administración General del Estado y a sus organismos públicos.
3. Los artículos 87 a 90 se dictan al amparo de la competencia exclusiva que el artículo 149.1.7.^a y 18.^a de la Constitución reserva al Estado en materia de legislación laboral y bases del régimen estatutario de los funcionarios públicos respectivamente.
4. La disposición adicional quinta y las disposiciones finales séptima y sexta se dictan al amparo de la competencia que el artículo 149.1.6.^a de la Constitución atribuye al Estado en materia de legislación procesal.
5. La disposición adicional tercera se dicta al amparo del artículo 149.1.18.^a de la Constitución.
6. El artículo 96 se dicta al amparo del artículo 149.1.8.^a de la Constitución.

da.

Azken xedapenetako hirugarrena. Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzea.

Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzen da, eta honela idatzita geratuko da:

Bat. Honela idatzita geratuko da hogeita hemeretzigarren artikuluko 3. apartatua:

«3. Aurreko epearen barruan, edozeinek aurkeztu ahal izango du bere erroldadatuena gaineko erreklamazioa Hauteskunde Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzara zuzenduta. Hala ere, soilik hartu ahal izango dira kontuan datu pertsonaletan dauden akatsen zuzenketekin loturikoak, hauteskunde-barruti berberaren barruan eginiko etxebizitza-aldaketekin loturikoak edo erreklamazio-egilea, eskubidea izan arren, hauteskunde-barrutiaren Erroldako Atal batean ere agertu ez izanarekin loturikoak. Erantzuna emango zaie halaber hauteskunde-propagandaren posta bidezko bidalketak egiteko hautagai-zerrenden ordezkari bidaltzen zaizkien hauteskunde-erroldaren kopietan sartzearen aurka dauden hautesleen eskaerei. Deitutako hauteskunderako ez dira kontuan hartuko hauteskunde-barruti batetik bestera etxebizitza-aldaketa jasotzen dutenak, baldin hauteskunde bakoitzerako errolda itxi ondoren egin badira. Kasu horietan, aurreko helbideari dagokion atalean gauzatuko du dagokion eskubidea.»

Bi. Berrogeita hamazortzi bis artikulua gehitzen da, eta honela dio:

Disposición final tercera. Modificación de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General.

Se modifica la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General que queda redactada como sigue:

Uno. El apartado 3 del artículo treinta y nueve queda redactado como sigue:

«3. Dentro del plazo anterior, cualquier persona podrá formular reclamación dirigida a la Delegación Provincial de la Oficina del Censo Electoral sobre sus datos censales, si bien solo podrán ser tenidas en cuenta las que se refieran a la rectificación de errores en los datos personales, a los cambios de domicilio dentro de una misma circunscripción o a la no inclusión del reclamante en ninguna Sección del Censo de la circunscripción pese a tener derecho a ello. También serán atendidas las solicitudes de los electores que se opongan a su inclusión en las copias del censo electoral que se faciliten a los representantes de las candidaturas para realizar envíos postales de propaganda electoral. No serán tenidas en cuenta para la elección convocada las que reflejen un cambio de residencia de una circunscripción a otra, realizado con posterioridad a la fecha de cierre del censo para cada elección, debiendo ejercer su derecho en la sección correspondiente a su domicilio anterior.»

Dos. Se añade un nuevo artículo cincuenta y ocho bis, con el contenido siguiente:

«Berrogeita hamazortzi bis artikulua. Bitarteko teknologikoen eta datu pertsonalen erabilera hauteskunde-jardueretan.

1. Herritarren iritzi politikoei buruz alderdi politikoen beren hauteskunde-jardueren barruan egiten dituzten datu pertsonalen bilketak interes publikokotzat joko dira bakar-bakarrik berme egokiak eskaintzen direnean.

2. Alderdi politikoen, koalizioen eta hauteskunde-taldeek web-orrietatik eta beste irispide publikoko iturrietatik lortutako datu-pertsonalak erabili ahal izango dituzte hauteskunde-garaian, jarduera politikoa egiten dituztenean.

3. Hauteskunde-propaganda bitarteko elektronikoa edo mezularitza-sistemen bidez bidaltzea eta propaganda hori sare sozialetan edo antzeko euskarrietan kontratatzea ez da merkataritza-jardueratzat edo -komunikaziotzat hartuko.

4. Aurreko apartatuetan aipaturiko dibulgazio-jardueretan, argi eta garbi identifikatuko da hauteskunde ingurukoak direla.

5. Aurka egiteko eskubidea baliatzeko modu erraz eta doakoa eskuratuko zaio hartzaileari.»

«Artículo cincuenta y ocho bis. Utilización de medios tecnológicos y datos personales en las actividades electorales.

1. La recopilación de datos personales relativos a las opiniones políticas de las personas que lleven a cabo los partidos políticos en el marco de sus actividades electorales se encontrará amparada en el interés público únicamente cuando se ofrezcan garantías adecuadas.

2. Los partidos políticos, coaliciones y agrupaciones electorales podrán utilizar datos personales obtenidos en páginas web y otras fuentes de acceso público para la realización de actividades políticas durante el periodo electoral.

3. El envío de propaganda electoral por medios electrónicos o sistemas de mensajería y la contratación de propaganda electoral en redes sociales o medios equivalentes no tendrán la consideración de actividad o comunicación comercial.

4. Las actividades divulgativas anteriormente referidas identificarán de modo destacado su naturaleza electoral.

5. Se facilitará al destinatario un modo sencillo y gratuito de ejercicio del derecho de oposición.»

Azken xedapenetako laugarrena. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzea.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen da, era honetan:

Bat. 58. artikuluari hirugarren apartatua gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«58. artikulua.

Hirugarrena. Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Legearen bosgarren xedapen gehigarrian jasotako deklarazioa baimentzeko eskaera, eskaera hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak egiten duenean.»

Bi. 66. artikuluari f) letra gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«66. artikulua.

f) Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Legearen bosgarren xedapen gehigarrian jasotako deklarazioa baimentzeko eskaera, eskaera hori Datuak Babesteko Espainiako Agentziak egiten duenean.»

Hiru. 74. artikulua 1. apartatuari k) letra eta artikulua berari 7. apartatua gehitzen zaizkio, eta honela idatzita geratzen dira:

«74. artikulua.

1. [...]

k) Datu Pertsonalak Babesteko eta

Disposición final cuarta. Modificación de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial.

Se modifica la Ley Orgánica, 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial, en los siguientes términos:

Uno. Se añade un apartado tercero al artículo 58, con la siguiente redacción:

«Artículo 58.

Tercero. De la solicitud de autorización para la declaración prevista en la disposición adicional quinta de la Ley Orgánica de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, cuando tal solicitud sea formulada por el Consejo General del Poder Judicial.»

Dos. Se añade una letra f) al artículo 66, con la siguiente redacción:

«Artículo 66.

f) De la solicitud de autorización para la declaración prevista en la disposición adicional quinta de la Ley Orgánica de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, cuando tal solicitud sea formulada por la Agencia Española de Protección de Datos.»

Tres. Se añaden una letra k) al apartado 1 y un nuevo apartado 7 al artículo 74, con la siguiente redacción:

«Artículo 74.

1. [...]

k) De la solicitud de autorización para la

Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoaren bosgarren xedapen gehigarrian jasotako deklarazioa baimentzeko eskaera, eskaera hori kasuan kasuko autonomia-erkidegoko datuak babesteko agintaritzak egiten duenean.

[...]

7. Justizia-auzitegi nagusietako administrazioarekiko auzien salei dagokie informazio-errekerimenduari baimena ematea, auto bidez, errekerimendua datuak babesteko agintaritzaren autonomikoek egiten dietenean publikoaren irispidean dauden komunikazio elektroniken zerbitzuak ematen dituzten operadoreei eta informazioaren gizartearen zerbitzua emaiten dutenei, dagokion legeria espezifikoaren arabera beharrezkoa denean.»

Lau. 90. artikuluari 7. apartatua gehitzen zaio:

«7. Administrazioarekiko auzien epaitegi zentralei dagokie informazio-errekerimenduari baimena ematea, auto bidez, errekerimendua Datuak Babesteko Espainiako Agentziak eta estatu mailako beste administrazio-agintaritzaren independenteei egiten dietenean publikoaren irispidean dauden komunikazio elektroniken zerbitzuak ematen dituzten operadoreei eta informazioaren gizartearen zerbitzua emaiten dutenei, dagokion legeria espezifikoaren arabera beharrezkoa denean.»

declaración prevista en la disposición adicional quinta de la Ley Orgánica de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, cuando tal solicitud sea formulada por la autoridad de protección de datos de la Comunidad Autónoma respectiva.

[...]

7. Corresponde a las Salas de lo Contencioso-administrativo de los Tribunales Superiores de Justicia autorizar, mediante auto, el requerimiento de información por parte de autoridades autonómicas de protección de datos a los operadores que presten servicios de comunicaciones electrónicas disponibles al público y de los prestadores de servicios de la sociedad de la información, cuando ello sea necesario de acuerdo con la legislación específica.»

Cuatro. Se añade un nuevo apartado 7 al artículo 90:

«7. Corresponde a los Juzgados Centrales de lo Contencioso-administrativo autorizar, mediante auto, el requerimiento de información por parte de la Agencia Española de Protección de Datos y otras autoridades administrativas independientes de ámbito estatal a los operadores que presten servicios de comunicaciones electrónicas disponibles al público y de los prestadores de servicios de la sociedad de la información, cuando ello sea necesario de acuerdo con la legislación específica.»

Azken xedapenetako bosgarrena. Osasunaren apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorra aldatzea.

Osasunaren apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorraren VI. tituluari II. kapitulua gehitzen zaio, eta honela dio:

«II. KAPITULUA

Osasun-ikerketako datuen tratamendua

105 bis artikulua.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoaren hamazazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoak arautuko du osasun-ikerketako datu pertsonalen tratamendua.»

Azken xedapenetako seigarrena. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea aldatzea.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea aldatzen da, era honetan:

Bat. 10. artikuluari 7. apartatua gehitzen zaio:

«7. 122 ter artikulua babesean egiten den baimen-eskaeraz arduratuko dira, eskaera hori kasuan kasuko autonomia-erkidegoko datuak babesteko agintaritzak egiten duenean.»

Bi. 11. artikuluari 5. apartatua gehitzen zaio:

«5. 122 ter artikulua babesean egiten

Disposición final quinta. Modificación de la Ley 14/1986, de 25 de abril, General de Sanidad.

Se añade un nuevo Capítulo II al Título VI de la Ley 14/1986, de 25 de abril, General de Sanidad con el siguiente contenido:

«CAPÍTULO II

Tratamiento de datos de la investigación en salud

Artículo 105 bis.

El tratamiento de datos personales en la investigación en salud se regirá por lo dispuesto en la Disposición adicional decimoséptima de la Ley Orgánica de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.»

Disposición final sexta. Modificación de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

La Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa, se modifica en los siguientes términos:

Uno. Se añade un nuevo apartado 7 al artículo 10:

«7. Conocerán de la solicitud de autorización al amparo del artículo 122 ter, cuando sea formulada por la autoridad de protección de datos de la Comunidad Autónoma respectiva.»

Dos. Se añade un nuevo apartado 5 al artículo 11:

«5. Conocerá de la solicitud de

den baimen-eskaeraz arduratuko dira, eskaera hori Datuak Babesteko Espainiako Agentziak egiten duenean.»

Hiru. 12. artikuluari 4. apartatua gehitzen zaio:

«4. 122 ter artikulua babesean egiten den baimen-eskaeraz arduratuko dira, eskaera hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak egiten duenean.»

Lau. 122 ter artikulua gehitzen da; honela dio:

«122 ter artikulua. Baimen judizialaren prozedura, nazioarteko datu-transferentzien alorrean Europako Batzordeak hartzen dituen erabakiak direla-eta.

1. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak bermatzeko Lege Organikoaren bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen den baimen judiziala lortzeko prozedura honela hasiko da: datuak babesteko agintaritzak eskaera egingo dio auzitegi eskudunari, iritzia eman dezan nazioarteko datu-transferentzien alorrean Europako Batzordeak hartzen duen erabakiaren eta Europar Batasuneko zuzenbidearen arteko adostasunari buruz. Datuak babesteko agintaritzaren aurrean ebazteko zain dagoen espedientearen kopia erantsiko zaio eskaerari.

2. Prozeduran alderdi izango dira, datuak babesteko agintaritza ez ezik, beraren aurrean izapidetu den prozeduran alderdi direnak ere, eta, kasu guztietan, Europako Batzordea.

3. Prozedura izapidetzeko onartzeari edo ez onartzeari buruzko erabakiak berretsi, aldatu edo kendu egingo du datuak

autorización al amparo del artículo 122 ter, cuando sea formulada por la Agencia Española de Protección de Datos.»

Tres. Se añade un nuevo apartado 4 al artículo 12:

«4. Conocerá de la solicitud de autorización al amparo del artículo 122 ter, cuando sea formulada por el Consejo General del Poder Judicial.»

Cuatro. Se introduce un nuevo artículo 122 ter, con el siguiente tenor:

«Artículo 122 ter. Procedimiento de autorización judicial de conformidad de una decisión de la Comisión Europea en materia de transferencia internacional de datos.

1. El procedimiento para obtener la autorización judicial a que se refiere la disposición adicional quinta de la Ley Orgánica de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, se iniciará con la solicitud de la autoridad de protección de datos dirigida al Tribunal competente para que se pronuncie acerca de la conformidad de una decisión de la Comisión Europea en materia de transferencia internacional de datos con el Derecho de la Unión Europea. La solicitud irá acompañada de copia del expediente que se encontrase pendiente de resolución ante la autoridad de protección de datos.

2. Serán partes en el procedimiento, además de la autoridad de protección de datos, quienes lo fueran en el procedimiento tramitado ante ella y, en todo caso, la Comisión Europea.

3. El acuerdo de admisión o inadmisión a trámite del procedimiento confirmará, modificará o levantará la suspensión del

babesteko araudia urratuz gero datuak babesteko agintaritzaren aurrean izapidetutako prozeduraren etendura, zeina baita baimen judiziala lortzeko prozedura honen oinarria.

4. Behin eskaera izapidetzeko onartu ondoren, auzitegi eskudunak horren jakitun ipiniko du datuak babesteko agintaritzaren aurrean izapidetutako prozeduran parte hartzen dutenei jakinaraz diezaien hiru eguneko epea dutela bertan pertsonatzeko. Halaber jakinaraziko zaio Europako Batzordeari, ondore beretarako.

5. Aurreko apartatuan adierazitako epea igarotakoan, baimen-eskaeraren berri jakinaraziko zaie pertsonatutako alderdiei, hamar eguneko epean egoki deritzotena alegatu dezaten; une horretan, beharrezko irizitako probak egiteko eska dezakete.

6. Probaldia amaitu eta gero, ikustaldia egingo da baldin alderdiren batek eskatzen badu eta organo jurisdikzionalak egokitzat jotzen badu. Ikustaldi horretan alderdien alegazioen funtsa diren auzien helmena zein den erabaki ahalko du auzitegiak.

7. Aurreko hiru apartatuetan aipaturiko izapideak amaitutakoan, erabaki hauetako bat hartuko du auzitegi eskudunak, hamar eguneko epean:

a) Uste badu Europako Batzordearen erabakia ados dagoela Europar Batzordearen zuzenbidearekin, hori deklaratzeko duen epaia emango du eta ezetsi egingo du eskatu den baimena.

b) Uste badu erabakia Europar Batasunaren zuzenbidearen aurka dagoela, erabakiaren baliozkotasunaren arazo prejudiziala planteatzen duen autoa

procedimiento por posible vulneración de la normativa de protección de datos tramitado ante la autoridad de protección de datos, del que trae causa este procedimiento de autorización judicial.

4. Admitida a trámite la solicitud, el Tribunal competente lo notificará a la autoridad de protección de datos a fin de que dé traslado a quienes interviniesen en el procedimiento tramitado ante la misma para que se personen en el plazo de tres días. Igualmente, se dará traslado a la Comisión Europea a los mismos efectos.

5. Concluido el plazo mencionado en la letra anterior, se dará traslado de la solicitud de autorización a las partes personadas a fin de que en el plazo de diez días aleguen lo que estimen procedente, pudiendo solicitar en ese momento la práctica de las pruebas que estimen necesarias.

6. Transcurrido el período de prueba, si alguna de las partes lo hubiese solicitado y el órgano jurisdiccional lo estimase pertinente, se celebrará una vista. El Tribunal podrá decidir el alcance de las cuestiones sobre las que las partes deberán centrar sus alegaciones en dicha vista.

7. Finalizados los trámites mencionados en los tres apartados anteriores, el Tribunal competente adoptará en el plazo de diez días una de estas decisiones:

a) Si considerase que la decisión de la Comisión Europea es conforme al Derecho de la Unión Europea, dictará sentencia declarándolo así y denegando la autorización solicitada.

b) En caso de considerar que la decisión es contraria al Derecho de la Unión Europea, dictará auto de planteamiento de cuestión prejudicial de validez de la citada

emango du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 267. artikuluan xedatutako eran.

Baimena emango da bakar-bakarrik Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak baliogabe deklaritzen badu auzitan jarri den Europako Batzordearen erabakia.

8. Errekurtsoen araubidea lege honetan ezarritakoa izango da.»

Azken xedapenetako zazpigarrena. Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzea.

Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 15 bis artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«15 bis artikulua. Lehia defendatzeko prozesuetan eta datuak babesteko prozesuetan esku hartzea.

1. Europako Batzordeak, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eta autonomia-erkidegoetako organo eskudunek beren eskumenen esparruan, prozesuko alderdi izan gabe ere, lehia defendatzeko prozesuetan eta datuak babesteko prozesuetan esku hartu ahal izango dute, beren ekimenez edo organo judicial batek eskatuta, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. eta 102. artikulua edo Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. eta 2. artikulua aplikatzearen inguruko arazoei buruz informazioa eman ez edo idatzizko oharrak aurkeztuz. Dagokion organo judicialak emandako baimenarekin, hitzezko oharrak ere aurkeztu ahal izango dituzte. Ondore horietarako, jurisdikzio-organu eskudunari eskatu ahal izango diote

decisión ante el Tribunal de Justicia de la Unión Europea, en los términos del artículo 267 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.

La autorización solamente podrá ser concedida si la decisión de la Comisión Europea cuestionada fuera declarada inválida por el Tribunal de Justicia de la Unión Europea.

8. El régimen de recursos será el previsto en esta ley.»

Disposición final séptima. Modificación de la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Se modifica el artículo 15 bis de la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil, que queda redactado como sigue:

«Artículo 15 bis. Intervención en procesos de defensa de la competencia y de protección de datos.

1. La Comisión Europea, la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia y los órganos competentes de las comunidades autónomas en el ámbito de sus competencias podrán intervenir en los procesos de defensa de la competencia y de protección de datos, sin tener la condición de parte, por propia iniciativa o a instancia del órgano judicial, mediante la aportación de información o presentación de observaciones escritas sobre cuestiones relativas a la aplicación de los artículos 101 y 102 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea o los artículos 1 y 2 de la Ley 15/2007, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia. Con la venia del correspondiente órgano judicial, podrán presentar también observaciones verbales. A estos efectos,

dena delako auzigaiaren balorazioa egiteko beharrezkoak diren dokumentu guztiak igor diezazkiela edo igorraz ditzala.

Informazio-emateak ez ditu barnean hartuko Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 65. eta 66. artikuluetan aurreikusitako isunen salbuespena edo haien zenbatekoan murrizketa aplikatzeko inguruabarren esparruan eskuratutako datu edo dokumentuak.

2. Europako Batzordeak, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eta autonomia-erkidegoetako organo eskudunek aurreko apartatuan aurreikusten diren informazioa edo oharra aurkeztuko dituzte 433. artikuluan aipatzen den judizio-ekitaldia egin baino hamar egun lehenago edo jarritako errekurtsori aurka egiteko edo hura aurkaratzeko epearen barruan.

3. Aurreko apartatuetan prozeduraren alorrean xedatutakoa aplikagarria izango da halaber Europako Batzordeak, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak eta datuak babesteko agintaritzak autonomikoei beharrezkotzat jotzen badute, beren eskumenen esparruan, esku hartzea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua aplikatzeari inguruko arazoak ukitzen dituen prozesu batean.»

podrán solicitar al órgano jurisdiccional competente que les remita o haga remitir todos los documentos necesarios para realizar una valoración del asunto de que se trate.

La aportación de información no alcanzará a los datos o documentos obtenidos en el ámbito de las circunstancias de aplicación de la exención o reducción del importe de las multas previstas en los artículos 65 y 66 de la Ley 15/2007, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia.

2. La Comisión Europea, la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia y los órganos competentes de las comunidades autónomas aportarán la información o presentarán las observaciones previstas en el número anterior diez días antes de la celebración del acto del juicio a que se refiere el artículo 433 o dentro del plazo de oposición o impugnación del recurso interpuesto.

3. Lo dispuesto en los anteriores apartados en materia de procedimiento será asimismo de aplicación cuando la Comisión Europea, la Agencia Española de Protección de Datos y las autoridades autonómicas de protección de datos, en el ámbito de sus competencias, consideren precisa su intervención en un proceso que afecte a cuestiones relativas a la aplicación del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016.»

Azken xedapenetako zortzigarrena. Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzea.

Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 46. artikuluko 2. apartatuari l) letra gehitzen zaio, eta honela dio:

«l) Bitarteko digitalen erabilerari eta segurtasunari buruzko prestakuntza eta Interneteko oinarritzko eskubideak bermatzeko prestakuntza.»

Azken xedapenetako bederatzigarrena. Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarritzko Legea aldatzea.

Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarritzko Legearen 16. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«16. artikulua. [...]

3. Historia klinikoa eskuratzeko xedea judiziala edo epidemiologikoa bada edo osasun publikoarekin, ikerkuntzarekin edo irakaskuntzarekin loturik badago, datu pertsonalak babesteko alorrean indarrean dagoen legeriak, Osasunaren apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak eta kasu bakoitzean aplikatzeko diren gainerako arauak xedatutakoari jarraituko zaio. Historia klinikoa xede horiekin eskuratzen denean, nahitaezkoa da pazientea identifikatzeko datuak gordetzea, datu kliniko-asistentzialetatik bereiziz, horrela orokorrean anonimotasuna bermaturik gelditzen baita, non eta pazienteak berak ez

Disposición final octava. Modificación de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades.

Se incluye una nueva letra l) en el apartado 2 del artículo 46 de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, con el contenido siguiente:

«l) La formación en el uso y seguridad de los medios digitales y en la garantía de los derechos fundamentales en Internet.»

Disposición final novena. Modificación de la Ley 41/2002, de 14 de noviembre, básica reguladora de la autonomía del paciente y de derechos y obligaciones en materia de información y documentación clínica.

Se modifica el apartado 3 del artículo 16 de la Ley 41/2002, de 14 de noviembre, básica reguladora de la autonomía del paciente y de derechos y obligaciones en materia de información y documentación clínica, que pasa a tener el siguiente tenor:

«Artículo 16. [...]

3. El acceso a la historia clínica con fines judiciales, epidemiológicos, de salud pública, de investigación o de docencia, se rige por lo dispuesto en la legislación vigente en materia de protección de datos personales, y en la Ley 14/1986, de 25 de abril, General de Sanidad, y demás normas de aplicación en cada caso. El acceso a la historia clínica con estos fines obliga a preservar los datos de identificación personal del paciente, separados de los de carácter clínicoasistencial, de manera que, como regla general, quede asegurado el anonimato, salvo que el propio paciente haya dado su consentimiento para no

duen eman bi datu motak ez bereizteko adostasuna.

Salbuespen dira Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoaren hamazazpigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan aipatzen diren ikerketa-kasuak.

Salbuespen dira, halaber, agintaritza judizialaren ikerketa-kasuak, baldin eta haien barnean ezinbestekotzat jotzen bada identifikazio-datuak eta datu kliniko-asistentzialak batera agertzea; horrelakoetan, epaileek eta auzitegiek kasuan kasuko prozesuan xedatzen dutena beteko da. Historia klinikoaren datuak eta dokumentuak eskuratze horiek kasu bakoitzaren xede jakinetara mugatuko dira hertsiki.

Biztanleriaren osasunaren aurkako arrisku bati aurre egiteko beharrezkoa denean, Osasun Publikoaren urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorrak aipatzen dituen osasun-administrazioek pazienteak identifikatzeko datuak eskuratu ahal izango dituzte, arrazoi epidemiologikoengatik edo osasun publikoa babesteko. Edonola ere, sekretu profesionala gordetzeko betebeharraren menpe dagoen osasun-profesional batek eskuratuko ditu, edo beste pertsona batek, sekretua gordetzeko antzeko betebeharraren menpe badago, eta eskaera hori egiten duen administrazioak datuak eskuratzeko zioak azaldu beharko ditu alde zuzenetik.»

separarlos.

Se exceptúan los supuestos de investigación previstos en el apartado 2 de la Disposición adicional decimoséptima de la Ley Orgánica de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Asimismo se exceptúan los supuestos de investigación de la autoridad judicial en los que se considere imprescindible la unificación de los datos identificativos con los clinicoasistenciales, en los cuales se estará a lo que dispongan los jueces y tribunales en el proceso correspondiente. El acceso a los datos y documentos de la historia clínica queda limitado estrictamente a los fines específicos de cada caso.

Cuando ello sea necesario para la prevención de un riesgo o peligro grave para la salud de la población, las Administraciones sanitarias a las que se refiere la Ley 33/2011, de 4 de octubre, General de Salud Pública, podrán acceder a los datos identificativos de los pacientes por razones epidemiológicas o de protección de la salud pública. El acceso habrá de realizarse, en todo caso, por un profesional sanitario sujeto al secreto profesional o por otra persona sujeta, asimismo, a una obligación equivalente de secreto, previa motivación por parte de la Administración que solicitase el acceso a los datos.»

Azken xedapenetako hamargarrena. Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzea.

Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 2. artikuluko 1. apartatuari l) letra gehitzen zaio, eta honela dio:

«l) Behar den gaitasuna, bermatzeko ikasleak gizarte digitalean oso-osorik txertatzen direla, bai eta bitarteko digitalak erabiltzen ikasiko dutela ere modu seguru eta errespetuzko batean, giza duintasunaren aldetik, Konstituzioaren balioen eta oinarrizko eskubideen aldetik, eta, bereziki, norberaren intimitaterako eta intimitate kolektiborako errespetu eta bermearen aldetik.»

Azken xedapenetako hamaikagarrena. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea aldatzea.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea aldatzen da, era honetan:

Bat. 6 bis artikulua gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«6 bis artikulua. Tratamendu-jardueren erregistroa.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoaren 77.1 artikuluan jasotako subjektuek beren tratamendu-jardueren zerrenda jarriko dute jendaurrean, lege horren 31. artikulua dioena betez.»

Disposición final décima. Modificación de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación.

Se incluye una nueva letra l) en el apartado 1 del artículo 2 de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, que queda redactado como sigue:

«l) La capacitación para garantizar la plena inserción del alumnado en la sociedad digital y el aprendizaje de un uso seguro de los medios digitales y respetuoso con la dignidad humana, los valores constitucionales, los derechos fundamentales y, particularmente, con el respeto y la garantía de la intimidad individual y colectiva.»

Disposición final undécima. Modificación de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Se modifica la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, en los siguientes términos:

Uno. Se añade un nuevo artículo 6 bis, con la siguiente redacción:

«Artículo 6 bis. Registro de actividades de tratamiento.

Los sujetos enumerados en el artículo 77.1 de la Ley Orgánica de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, publicarán su inventario de actividades de tratamiento en aplicación del artículo 31 de la citada Ley Orgánica.»

Bi. Honela idatzita geratzen da 15. artikulua 1. apartatua:

«1. Eskatutako informazioak ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio edo sinesmenen berri ematen duten datu pertsonalak baditu, informazio hori eskuratzea baimendu ahalko da ukitutako pertsonaren berariazko baimen idatzia izanez gero, salbu eta pertsona horrek nabarmen eman baditu aditzera datuok beroiek eskuratzea eskatu baino lehen.

Informazioak arrazari, osasunari edo bizimodu sexualari buruzko datu pertsonalak baditu, edo datu genetiko edo biometrikoak, edo arau-hausleari ohartarazpen publikorik ez dakarkioten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da ukituaren berariazko adostasuna edukitzea edo lege-mailako arauen baten babesa izatea.»

Azken xedapenetako hamabigarrena. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aldatzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta honela idatzita geratzen dira:

«28. artikulua. [...]

2. Interesdunak ez daude beharturik jada diharduen administrazioaren esku dauden dokumentuak edo beste administrazioen batek eginak direnak ekartzera. Diharduen administrazioak dokumentu horiek

Dos. El apartado 1 del artículo 15 queda redactado como sigue:

«1. Si la información solicitada contuviera datos personales que revelen la ideología, afiliación sindical, religión o creencias, el acceso únicamente se podrá autorizar en caso de que se contase con el consentimiento expreso y por escrito del afectado, a menos que dicho afectado hubiese hecho manifiestamente públicos los datos con anterioridad a que se solicitase el acceso.

Si la información incluyese datos personales que hagan referencia al origen racial, a la salud o a la vida sexual, incluyese datos genéticos o biométricos o contuviera datos relativos a la comisión de infracciones penales o administrativas que no conllevaran la amonestación pública al infractor, el acceso solo se podrá autorizar en caso de que se cuente con el consentimiento expreso del afectado o si aquel estuviera amparado por una norma con rango de ley.»

Disposición final duodécima. Modificación de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Se modifican los apartados 2 y 3 del artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que pasan a tener la siguiente redacción:

«Artículo 28. [...]

2. Los interesados tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración. La administración actuante

kontsultatu edo eskuratu ahalko ditu, interesdunak aurka egin ezean. Ezin izango da aurka egin, dokumentua ekartzea nahitaezkoa denean zehatzeko edo ikuskatzeko ahala egikaritzeko esparruan.

Administrazio publikoek elektronikoki eskuratu beharko dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bitartez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo hartarako prestatutako beste sistema elektronikoren bati kontsulta eginez.

Nahitaezko txosten bat lehendik egina duenean prozedura izapidetzen ari den administrazio-organismoaz beste batek, hamar eguneko epean bidali beharko du hark, eskatzen denetik aurrera zenbaturik. Epe hori betetakoan, interesdunari jakinaraziko zaio ekar dezakeela txosten hori edo geldi daitekeela organo eskudunak bidaltzeko zain.

3. Administrazioek ez diete interesdunei eskatuko jatorrizko dokumentuak aurkezteko, non eta, salbuespenezko moduan, aplikatzekoa den araudiak ez duen hala agintzen.

Era berean, administrazio publikoek ez diete interesdunei galdatuko aplikatzekoa den araudiak eskatzen ez duen edo interesdunak lehendik administrazioaren bati ekarria dion datu edo dokumenturik. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, eta administrazio publikoek elektronikoki atera beharko dituzte beren sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformetan edo hartarako prestatutako gainerako sistema elektronikoen bidez kontsulta eginez, non eta prozeduran ez den interesdunaren aurkakotasun espresua jasotzen edo aplikatzekoa den lege bereziak ez duen

podrá consultar o recabar dichos documentos salvo que el interesado se opusiera a ello. No cabrá la oposición cuando la aportación del documento se exigiera en el marco del ejercicio de potestades sancionadoras o de inspección.

Las Administraciones Públicas deberán recabar los documentos electrónicamente a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto.

Cuando se trate de informes preceptivos ya elaborados por un órgano administrativo distinto al que tramita el procedimiento, estos deberán ser remitidos en el plazo de diez días a contar desde su solicitud. Cumplido este plazo, se informará al interesado de que puede aportar este informe o esperar a su remisión por el órgano competente.

3. Las Administraciones no exigirán a los interesados la presentación de documentos originales, salvo que, con carácter excepcional, la normativa reguladora aplicable establezca lo contrario.

Asimismo, las Administraciones Públicas no requerirán a los interesados datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración. A estos efectos, el interesado deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos, debiendo las Administraciones Públicas recabarlos electrónicamente a través de sus redes corporativas o de una consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, salvo que conste en el procedimiento la oposición expresa del interesado o la ley especial aplicable

eskatzen adostasun espresua ematea. Salbuespenezko moduan, administrazio publikoek ezin badituzte aipatutako dokumentuak eskuratu, berriz ere eskatu ahal izango diote interesdunari ekar ditzala.»

Azken xedapenetako hamahirugarrena. Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina aldatzea.

Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginari 20 bis artikulua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«20 bis artikulua. Langileen intimitaterako eskubidea ingurune digitalean eta deskonexio-eskubidea.

Langileek eskubidea izango dute haien intimitatea babestua izan dadin enplegatzaileak haien esku jarritako gailu digitalak erabiltzen dituztenean, bai eta deskonexio digitalerako eskubidea ere, eta intimitaterako eskubidea, halaber, bideozaintzarako eta soinu-grabazioetarako gailuak erabiltzearen aurrean, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako eran.»

requiera su consentimiento expreso. Excepcionalmente, si las Administraciones Públicas no pudieran recabar los citados documentos, podrán solicitar nuevamente al interesado su aportación.»

Disposición final decimotercera. Modificación del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.

Se añade un nuevo artículo 20 bis al texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, con el siguiente contenido:

«Artículo 20 bis. Derechos de los trabajadores a la intimidad en relación con el entorno digital y a la desconexión.

Los trabajadores tienen derecho a la intimidad en el uso de los dispositivos digitales puestos a su disposición por el empleador, a la desconexión digital y a la intimidad frente al uso de dispositivos de videovigilancia y geolocalización en los términos establecidos en la legislación vigente en materia de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales.»

Azken xedapenetako hamalauugarrena. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina aldatzea.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 14. artikuluari j bis) letra gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«j bis) Intimitaterako eskubidea, haien esku jarritako gailu digitalak erabiltzen dituztenean eta bidezaintzarako eta soinu-grabazioetarako gailuak erabiltzearen aurrean, bai eta deskonexio digitalerako eskubidea ere, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako eran.»

Azken xedapenetako hamabosgarrena. Araugintza-garapena.

Gaikuntza ematen zaio Gobernuari 3.2, 38.6, 45.2, 63.3 eta 96.3 artikuluetan eta seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa garatzeko, artikulua eta xedapen horietan adierazitako eran.

Azken xedapenetako hamaseigarrena. Indarrean jartzea.

Lege organiko hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,

Lege organiko hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2018ko abenduaren 5ean.

Disposición final decimocuarta. Modificación del texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

Se añade una nueva letra j bis) en el artículo 14 del texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, que quedará redactada como sigue:

«j bis) A la intimidad en el uso de dispositivos digitales puestos a su disposición y frente al uso de dispositivos de videovigilancia y geolocalización, así como a la desconexión digital en los términos establecidos en la legislación vigente en materia de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales.»

Disposición final decimoquinta. Desarrollo normativo.

Se habilita al Gobierno para desarrollar lo dispuesto en los artículos 3.2, 38.6, 45.2, 63.3, 96.3 y disposición adicional sexta, en los términos establecidos en ellos.

Disposición final decimosexta. Entrada en vigor.

La presente ley orgánica entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Estado.

Por tanto,

Mando a todos los españoles, particulares y autoridades, que guarden y hagan guardar esta ley orgánica.

Madrid, 5 de diciembre de 2018.

FELIPE e.

FELIPE R.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

El Presidente del Gobierno,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak egindako itzulpena